

01/03/2010

Barrikotea eta Martxoan Bertsoa lehiaketako kanporaketa Igartubeitin

Igartubeiti Baserri Museoak (Ezkio, Gipuzkoa) barrikotea eta martxoan bertso kanporaketa antolatu du, Yartu elkarte eta Urretxu-Zumarragako bertso eskolaren lankidetzarekin.

Martxoak 6, larunbata, 19.00etan bertsolari saioaren hasiera, eta 20.30etan Barrikotea, Igartubeitin urrian egindako sagardoaren dastaketa, afari-merienda eta trikitixa.

Oharra: 18:30etan doako autobus zerbitzua eskainiko da Zumarragako elizatik Igartubeiti baserrira joateko.